



## AZALPEN-OHARRA, HEZKUNTZA SAILEKO LAN-LEGEPEKO HEZITZAILEEN ETA ZERBITZUETAKO LAN-LEGEPEKO LANGILEEN BERTARATZE-ERREGIMENARI BURUZKOA

2020ko martxoaren 16an, Hezkuntza Sailaren mendeko lan-legepeko langileak beren lanpostura joateko araubideari buruzko instrukzio osagarria eman zen, eskola-jarduera presentziala etenda zegoen bitartean.

Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2020ko maiatzaren 19ko Instrukzioak jarraibide hori indargabetu eta, berariaz, zera ezartzen du:

- Irakaskuntzari Laguntzeko eta Ikertzeko Zerbitzuei eta Hezkuntza Ikuskaritzako Kidegoari atxikitako langileak beren lantokietara bertaratuko dira 2020ko maiatzaren 21ean, hurrengo ostegunean.
- Aurrez aurreko irakaskuntzara bueltatzea ezartzen den zikloetako eta mailetako ikastetxeetako langileak beren lanpostuetara itzuliko dira modu presentzialean, aurreikusitako programazioaren arabera eta hezkuntza-jarduera antolatzeke behar besteko aurrerapenarekin.
- Lanpostuetara aurrez aurre bertaratzeko zain dauden gainerako langileek pixkanaka itzuliko dira ekaineko lehen astean, ikastetxeek euren antolamendu-autonomiaren arabera xedatzen dutenaren arabera, eta aldi honi dagozkion eginkizunak betetze aldera.

Horri dagokionez, hezkuntzako lan-legepeko langileei dagokienez, honako hau adierazi behar da:

- Hezkuntza-laguntzako espezialisten eta zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan, erreferentziako ikastetxea izango da bertaratu beharko diren lekua, ikastetxeko zuzendaritzak ezarritako baldintzetan.
- Lurralde-ordezkaritzari atxikitako fisioterapeuten eta lan-terapeuten kasuan, beren lanaldiaren zatirik handiena garatzen duten Berritzegunera bertaratuko dira.
- Era berean, materialaren transkribatzaile eta egokitzaileak ikusteko Urritasuna duten Ikasleentzako Baliabidetegien egoitzara bertaratuko dira.

Bestalde, garbiketako lan-legepeko langileak dagoeneko aurrez aurreko zerbitzuak ematen ari dira ikastetxeetan.

Sukaldeko langileei dagokienez, kontuan hartuta kolektibo horren lan-ezaugarriak, eta COVID-19k sortutako egoeratik eskola-jantokiak ixteko hartutako prebentzio-neurriaren ondorioz, sukaldeko langileak ez dira nahitaez beren lanpostuetara bertaratu beharko, baizik eta zuzendaritzen esku geratuko dira, unean uneko zereginetarako prest.

Inguruabar horiek kontuan hartuta, eta dagozkien eginkizunak telelan-sistemaren bidez betetzea ezinezkoa denez, langile horientzako prestakuntza-jarduera presentzialak zein telematikoak eskaintzea aurreikusi da.



Prestakuntza presentziala ekainean egingo da, segurtasun- eta osasun-neurriak betez eta ekitaldia burutzen den momentuan indarrean dagoen araudiak baimentzen duen gela-aforoa zainduz.

Era berean, "on line" ikastaroen eskaintza bat ere egingo da, ikastaroak ikastetxetik burutu ahal izateko, bertako baliabide informatikoen bidez, edo nork bere etxetik.

Prestakuntza-eskaintza hori webgunean argitaratuko da eta ikastetxeetan zabalduko da.